




Mendiz mendi: **USOKO** inguratuz

INAXIO SANZ ZALAKAIN


AZALPENA

Proposatzen dugun ibilbidea, USOKO erreka urak isurtzen dituzten lurrei, itzulia egitea da.

ZAILTASUNA

Ez da prestakuntza berezirik behar ibilaldi hau burutzeko, baina komeni da mendian ibiltzen ohitura apur bat izatea.

Aldapa gehien duen zatia hasierakoa da, hau da, Agiñako gailurra menderatu artekoa, gero gora-behera batzuk besterik ez ditu Saratsetako lepora iritsi arte, hemendik bukatu bitartean beheruntz.



ORDUTEGIA

Goiz edo arratsalde batean egin daiteke, baina, Akolako atsedean lekua bidean dela kontuan izanik, beste aukera bat egun osorako joatea da.

AIPATZEKOAK

Agiña eta Akolak eskaintzen duten ikuspegi ederra, monumentu megalitiko ugari, saroeak, Pagosardeko pagadi ederra, Akolako atsedean lekua eta Txirritaren oroigarria bere jaiotetxea zegoen lekuan.

MAPAK


- HERNANIKO MAPA: Eskala: 1/15.000
- CARTOGRAFÍA MILITAR DE ESPAÑA- Hoja 24-4,

24-5 (40)(64), SAN SEBASTIÁN, Escala: 1/50.000.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren HERNANIKO TOPONIMIA mapa. 64(31-32-39-40 orriak). Eskala 1/5.000.

HURBILKETA

Hernanitik Goizuetara doan errepidea hartu, Ereñotzu auzoa pasa ondoren, 750 m.tara, bihurtu baten ostean eskubitara LATXE etxea dugu, bere kanpoaldean ipintzen duen moduan. Etxe luze bat da eta berezitasun bat dauka, eskailerak kanpoko aldetik ditu. Honen parean, errepidearen beste aldean, Latxeo olaren ondakinak daude¹, hau izango da abiapuntua.



IBILBIDEAREN XEHETASUNAK

0.0:

LATXE (40 m). Errepidetik Goizuetaruntz abiatu eta 150 m. egin ondoren ezkerretara Abillats etxea dago, ondoko pista hormigoiduna hartu, 5'etara Txabolategi baserrian, hormigoia bukatu eta lurrezko pistak jarraitzen du hego-ekialderuntz. Hemendik Axari lepora iritsi arte hasieran eukalipto artean, gero pinudian eta aurrerantzean pinu entresaka egin berria den paraje batean joango gara, zati honetan pista eta bidegurutze berri asko ireki dituzte, (deskribatzea nahiko korapilotsua denez ikus goiko marrazkia). Pista zabalenari jarraitzea gomendatzen dugu. Iritsi baino 500 bat metro lehenagoko bidegurutzean, iadanik gailurra bistan dugula, eskasagoa den ezkerreko bidea hartuko dugu goruntz Axari lepora iritsiz, hemendik ezkerretara dagoen itxiturari jarraituz eta gero pasaz bertan dagoen gailurrera heldu arte.

1or.00':

AGIÑA (442 m). Burdinezko zuhaitz bat du buzoi bezala, inskripzio honekin:
JOXE LEGARRETA'REN OROIMENEZ
AGIÑA -442 M.
EREÑOZUKO "OLAK" AUZO ELKARTEA
ETA

MENDIRIZ-MENDI ELKARTEA
HERNANI, 1994'KO OTSAILAK 20AN
MENDIAK ASKO MAITE ZENITTUN
OIETATIK BAT "AGIÑA",
ZEURE DENBORAN AMAIKA ALDIZ
IGO TA JETXI EGINA.
GURE INGURUGIROA ZAINTZEN
EGIN ZENDUN ALEGIÑA,
ONDORENGOAK IZAN ZEZATEN
BIZILEKU ATSEGIÑA.

Nahiz eta mendi apala izan ikuspegi zabalekoa da, iparraldetik mendebalderako zentzuan Igoi, Jaizkibel, San Markos, Txoritokieta, Ulia, Akola, Donostia, Igeldo, Mendizorrotz, Andatza, Buruntza, Onddi, Ernio, Aballarri, Adarra, Onddo, Zaburu, Azketa, Merku, Unamuno, Mandoegi, Iguzkizko Muñoa, Urdaburu eta Aiako Harria ikusten direlarik.

Berriro lehen utzitako lepora itzuli behar da, hemendik gainez gain, eskubitara pagadi gazte eder bat utziz, AGIÑA mendiaren bigarren tontorrean izango gara, harritsua lehena bezala, ikuspegiz laburragoa zuhaitzez ingurutua dagoelako.

Mendi bizkarretik ipar-ekialderuntz jarraituz leku harritsuak eskubitik gainditzen direla, Elorrietako lepora iritsiko gara, zentzu berean jarraitu, eta hurrengo tontor gainera iritsi baino lehenago

eskubian dagoen gurdi bide bat hartu, eta laster batean hurrengo lepoan gara.

1or.25':

LIZARREGIko lepoa (362 m). Behera eskubiruntz irteten diren bideei jaramonik egin gabe, gainez gain ipar-ekialderuntz hesiari jarraitu, malda zutitu egiten da baina motza da, ezkerretara alanbrezko bi itxitura artean² ipar-ekialderuntz doan bidea hartu, bi alboetara, nahastuta pago eta pinu landaketa gazte bat dago. Ataka bat pasatzen da, Urdaburu mendiaren magala inguratuz, hau eskubitara goien utziz, bidegurutze batera iritsiko gara behera doan ezkerreko bidea hartuz, laster beste bidegurutze eta ataka batekin egingo dugu topo, hemen ezkerreko bidea utzi³ eta ataka zeharkatuko dugu.

1or.55':

Pagadi eder batean kokatua dagoen PAGOSARDEKO (412 m)⁴ atsedeen lekura iristen da. Etorri garen bideari jarraitzen badiogu pinu artean iparralderuntz sartuko da, eskubitara iturri bat pasako dugularik.

2or.05':

MALMAZAREko lepoa (409 m). Iristear gaudela ezkerretara ote artean bidezidor bat hartu eta ≈10 m. tara berriro ezkerretara joan beharko dugu, honela Malmazar gaina inguratuko dugu alanbrezko itxitura ingurura iritsi arte. Aurrerantzean, hasieran eukalipto eta pinu artean jaitsiko gara, gero gainez gain, ezkerretara beharuntz doan bide bat utzi eta itxitura jarraituz mendebalderuntz joko dugu.

2or.25':

BENTA TXURI baserria zegoen lekuan (331 m). Bidegurutze berri bat aurkituko dugu, orain eskubitara borda berri bat dago eta ezkerretara nekazalturismoko etxea iragartzen duen txartel bat. Pista gurutzatu eta parekoa mendebalderuntz hartuz, Igoian mendia inguratuz, hasieran



LURREAN SARTUTAKO HARLAUZA HANDI BATZUK.



TRIKUARRI-GELAN HIL BATEN LEKURATZEA.



EZARIMAILA BEZALA BALIA ZITEKEEN TUMULUA, ESTALKITAKO HARLAUZA ASTUNA IGOTZEKO.

eskubitara lizar landaketa gazte bat dugularik eta gero altzak. Hurrengo bi bidegurutzetan eskubitara hartuko dugu.

2or.35':

IGOINGO lepoa (319 m). Eskubitara Igoingo lepua I trikuharria ikusiko dugu, aurrean dagoen kanadiar tranpa pasa gabe, ezkerretara ote artean doan bidezidorra hartu hegomendebalderuntz. Mendi bizkarretik itxituraren ondoan jarraituz, Igoingo lepua II trikuharriarekin aurkituko gara, laister itxiturak beste norabide bat hartzen du. Lehengo norabideari jarraituz Larregaindik datorren pista zabal batekin topo egingo dugu, hau gurutzatu eta zuzenean gora jarraitu hurrengo tontorra eskubitik pasaz, gero gainez gain beharuntz Akolako lepura iritsi baino ≈150 m. lehenago Arritxietako trikuharria dago, bidetik ≈15 m. ezkerretara, aurrerago bide ondoan Akolako lepua II trikuharria dago berehala.

2or.55':

AKOLAKo lepoa (298 m). Hemendik ezkerreko bidea hartuz ≈100 m. tara bidegurutze baten alboan, ezkerretara, Akolako lepua I trikuharria aurkitzen da. Lehengo lepura itzuli eta gainez gain jarraituko diogu bideari.

3or.10':

AKOLA (362 m). Geodesikoa, norabideari eutsiz.

3or.15':



SARATSETAKo lepoa (320 m). Hemen Sagastietako (Saratsetako) lepua izeneko bi trikuharri daude, I deritzaiona inguru hauetan hobekien irauten duena da, hemen ekialdera beharuntz doan bidea hartu eta laister II. trikuharria dago. Segi beharuntz, bideak bi alboetan altza gazteen landaketa du. Hurrengo bidegurutzean eskubitara, laister pinu handi batzuen ondoan ezkerretara bidezidorra hartu eta zuzenean.

ERRENTERIA

DONOSTIA

DONOSTIA

Eskala: 1/20.000



UDALERRI MUGA

== ERREPIDEA

BIDEA

IBAIA

ERREKA

ELIZA

ETXEA, BASERRIA, BORDA, TXABOLA

♂ ITURRIA

Δ GAILURRA

π ΕΡΑΙΚΥΝΤΖΑ ΜΕΓΑΛΙΤΙΚΟΑ

* SAROE A

✪ ELEMENTU HISTORIKO - ARKITEKTONIKOA

